

## **FUNTSEZKO JARDUERAK:**

Gure enpresaren funtsezko jarduerak hainbat zatitan bana daitezke:

- Produkzioaren aldetik, guk geuk izango dugu behar ditugun produktuak produzitzearen ardura. Gure baratzetan ekoiztuko ditugu behar ditugun barazki eta lekaleak, eta Ereñozuko baserrian izango ditugun animalietatik aterako ditugu behar ditugun arrautzak, esnea, haragia...
- Jatetxea izango da jarduerarik garrantzitsuena, sukaldatu, garbitu, zerbitzatu... gauza gehienak otordu garaietan egin beharko ditugu eta ordu horiek izango dira gure negozioko ordurik zailenak. Gero sukaldatu, animaliak zaindu eta baratzeak zaindu besterik ez dugu egin beharko.
- Astean zehar bezero gutxi edukiko ditugunez, zahar-etxe eta jende ugari dagoen lekuetara janaria etxera eramango dugu. Seguruena da janari asko soberan gelditzea, beraz, etekina ateratzeko aukera paregabea izan daiteke. Baina hala ere janaria soberan geratuko denez, janari hori laguntza sozialari emango diogu.
- Ostalaritza zerbitzuak aurreragoko gauza izango dira, lehenengo jatetxea martxan jarri beharko dugu eta etorkizunerako proiektio bezala utziko dugu ostalaren kontua.